

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UDALA

2026ko otsailaren 18ko, Alkatetzaren 2026-0071. Ebazpenaren laburpena. Ebazpen horren bidez, Zigoitiko kontzejuentzako diru-laguntzen deialdia egin zen, 2026rako, norgehiagoka-prozeduraren bidez, inbertsioen gastuetarako

BDNS(Identif.): 888206.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/888206>).

Lehenengoa. Onuradunak

Onuraduntzat joko dira Zigoitiko udalerrian legez eratuta eta erregistratuta dauden kontzejuak.

Bigarrena. Xedea

Diru-laguntzaren xedea da udalerriko kontzejuak sustatzen dituzten eta herritarren bizi-kalitatea hobetzen duten zerbitzu publikoak garatzeko helburua duten obrak finantzatzea:

1. TALDEA:

Obra berria, edateko uraren etxeko hornidura-sarearen azpiegiturak eta euri-uren eta ur zikin-en saneamendua eguneratu eta konpontzekoa.

Bide publikoak seinaleztatzeko obrak, bizikletentzako eta oinezkoentzako erreiak mugatzea barne.

Lehendik dauden eraikinen eraginkortasun energetikoa hobetzeko obrak (isolamendua hobetzea, energia-iturri berriztagarriak ezartzea, hidraulikoa, eguzki-energia, eolikoa, biomasa...).

Hiri-lurzoruko kaleak eta nekazaritza-erabilerako bideak berritzea eta konpontzea, obra bizikletaz erabili ahal izateko bada. Ez dira diruz lagunduko, talde honen barruan, kaleak eta bideak egokitzeko obrak, bizikleta-zirkulazioak eta motordun trafikoak modu partekatuan edo mistoan erabiltzeko.

Hiri-lurzorutik kanpoko auzo-bideak berritzea eta konpontzea, obra bizikletaz edo oinez erabili ahal izateko bada, eta Zigoitiko herriguneak lotzeko ibilbide baten zati badira.

2. TALDEA:

Obra berria, kontzeju-etxea eta herriko bizilagunei zerbitzu publikoa ematen dieten beste eraikin batzuk birgaitzeko eta konpontzeko.

Obra berria, hiri-lurzoruko kale publikoen zoladura berritzeko eta konpontzeko, edo batzarren jabetzako sarbideak nukleoetara eta hilerrietarako sarbideak.

Hiri-hondakinak biltzeko zerbitzuan erabilitako azpiegiturak eguneratzeko eta konpontzeko obra berria. Ez da diruz lagunduko edukiontziak estaltzeko egiturak jartzea.

Obra berria, argiteria publikoko, elektrizitateko eta telefoniako zerbitzuak eta horien instalazioak lurpeko kanalizazioa eguneratu eta konpontzekoa.

Obra berria, bidaiarien garraio publikorako markesinak edo antzekoak eguneratu eta konpontzeko.

Kontzejuetako elementu bereziak birgaitzeko eta konpontzeko obrak, hala nola ermitak, iturriak, errotak, garbitokiak, parrokia-elizak, baldin eta administrazio-batzarraren jabetzakoak badira, edo jabearen edo dagokion administrazio-batzarraren esku uzten badu jabetza edo erabilera. Erabileraren lagapena indarrean egon beharko da eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunetik zenbatzen hasita hurrengo hogeita bost urteetan.

3. TALDEA:

Kirol-ekipamenduak birgaitzeko eta konpontzeko obra berria.

Obra berria, haurrentzako jolasguneetarako espazioak birgaitzeko eta konpontzeko.

Berdeguneetarako eta hiri-lorategietarako espazio publikoak birgaitzeko eta konpontzeko obra berria.

Hilerria konpontzea eta/edo eraikitzea.

Interes kultural eta turistikoko lekuak seinaleztatzeko obrak.

4. TALDEA:

Nekazaritza-bideak berritzea eta konpontzea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Diru-laguntza horiek emateko oinarri arautzaileak Zigoitiko kontzejuei diru-laguntzak emateko ordenantza espezifikoa jasota daude. Ordenantza hori 2021eko abenduaren 20an onartu zen, eta 2022ko otsailaren 28an argitaratu zen ALHAOn (25. zk.).

Diru-laguntza horiek emateko prozedura norgehiagoka-erregimenean izango da, aurkeztutako eskabideak alderatuz, deialdi honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera lehentasun-hurrenkera ezartzeko, eta irizpide horiek aplikatuz balorazio handiena lortu dutenak esleituko dira, hurrengo puntuan ezarritako mugarekin.

Laugarrena. Laguntzaren zenbatekoa

Deialdi honen arabera aurkeztutako eskabideen ondorioz ematen diren laguntzen finantzaketa 943.734.000 aurrekontu-aplikazioari egotziko zaio, 2025rako aurrekontuko "kontzejuentzako inbertsio-diru-laguntza" gisa.

Deitutako laguntzen gehieneko zenbatekoa 175.000,00 eurokoa da.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

2026ko apirilaren 1ean amaituko da eskaerak eta dokumentazioa aurkezteko gehieneko epea.

Eskaerarekin batera, ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dira:

Eskabide ofiziala, behar bezala beteta eta sinatuta.

Diruz lagunduko den jardueraren justifikazio-memoria. Bertan, gutxienez, egin beharreko obraren deskribapen laburra, obraren kokapen fisikoa eta egin beharreko lanen zerrenda adieraziko dira.

Obren aurrekontua.

Seigarrena. Justifikaziorako epea eta modua

Diru-laguntza jasotzeko, honako agiri hauek aurkeztu beharko zaizkio udalari:

Onuradunak izenpetutako eskabidea, Alkatetzari zuzendua, diru-laguntza ordaintzeko eskatuz, transferentzia zein kontu-zenbakitara egin behar den adieraziz.

Jatorrizko fakturak edo gastua justifikatzen duten fakturen fotokopia konpultsatuak edo kopia konpultsatuak.

Aurkeztutako fakturen ordainagiriak.

Beste erakunde edo organismo batzuek emandako diru-laguntzen egiaztagirak.

Justifikaziorako dokumentazioa 2026ko abenduaren 15era arte aurkeztu beharko da, egun hori barne.

Ondategin, 2026ko otsailaren 19an

Alkatea

JAVIER GORBEÑA GARCÍA